

Finantzaketa eta gastu publikoa kultura-arloan EAEn **2018**

Emaitzen laburpena



KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



Kulturaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de la Cultura

Aurkibidea


1. Kultura-gastua 2018 eta bilakaera 2010-2018 aldian	3
2. Kultura gastu publiko osoari dagokionez	4
3. Ohiko gastuaren azterketa	6
4. Gastu publikoaren pisua sektoreetan	9
5. Enplegu publikoa	11

1. Kultura-gastua 2018 eta bilakaera 2010-2018 aldian

Gastu-muga berri baten aurrean gaude

Aurreko ekitaldian (2016) joera-aldaketa baten aurrean egon gintezkeela iragarri bazitekeen ere – gehikuntza esanguratsuarekin serie historikoaren unerik baxuenarekin (2012) alderatuta–, ekitaldi honetan, aldiz, jaitsiera izan dugu, oso txikia bada ere. Joera positiboko aldaketa hori ez da kontsolidatu. Horrela, 2018ko gastu likidatua 558,5 milioi eurora iritsi da, eta kontsolidazio-prozesua aplikatu ondoren zifra hori garbitutakoan, 423 milioi euroan finkatu da.

1. irudia. Gastu likidatua eta gastu kontsolidatua kultura-arloan (milioi eurotan). 2010-2018.



Foru-aldundiak eta udalak dira 2016. urtearekin alderatuta kultura-arloko gastuan jaitsiera txiki bat izan duten administrazioak (% 2,5 inguru). 2008-2010 aldiko parametroen gaineko EAEko kultura-arloan gauzatutako gastu publikoa berreskuratze horizontera iristeko aukera gero eta urrunago dago. Kultura-arloko gastu garbiaren muga berria 420-30 milioi euroan dago. Pandemiak eragindako ezohiko egoera kontuan izanda –egoera hori azterketa hau lantzen den unearrekin batera gertatzen ari dela jakinda eta horren isla estatistikaren hurrengo edizioetan aztertu ahalko delarik–, pandemia aurreko horizonte hori izango da erreferentzia berria kultura-arloko aurrekontuetan izango duen inpaktua neurtzeko.

Kulturaren kontsolidatutako gastuaren aldaketa	Eusko Jaurlaritzaren	Foru Aldundiak	Udalak	EAE, guztira
2010-2018	▼% 3,0	▼% 11,5	▼% 14,1	▼% 11,7
2016-2018	▲% 5,7	▲% 2,4	▼% 3,0	▼% 1,4


2. Kultura gastu publiko osoari dagokionez

■ Kulturak pisu gero eta txikiagoa du aurrekontu totali dagokienez

2018an, gastuaren guztizkoaren % 8,1 izan da udalek kultura-arloan izan duten gastua. Kultura-arloko gastuek erakunde jakin baten aurrekontu totaletan duten pisu erlatibo hori % 2,9ra iristen da foru-aldundietan eta % 0,6ra Eusko Jaurlaritzan.

Fenomeno erkide bat ikus daiteke administrazio-maila guztietan: gastu-aurrekontu orokorren aldakuntzek ez dute proportziosko islarik kultura-aurrekontuetan, ez modu positiboan, ez negatiboan. Aurrekontuak handitzen direnean, kultura-arloko gehikuntza gastu totalaren gehikuntza baino txikiagoa da, eta txikitzen direnean, aldiz, kultura-arloko murrizketa handiagoa da gastu totaleko murrizketa baino. Horrek berretsi egiten du kultura-arloko gastu publikoan inoiz gaitzera zaila izango den mugara iritsi gareneko pertzepzioa, salbu eta inbertsioek edo ezohiko jardun konkretuek eragindako arrazoiengatik ez bada.

2 irudia. Kultura-arloko gastu likidatuaren bilakaera eta aurrekontu totalak (Oinarrizko indizea 100 = 2008), eta kultura-ahalegina (%), administrazio-mailen arabera. **2008-2018.**




3. Ohiko gastuaren azterketa

Ohiko gastua, erakunde bakoitzaren politika moten eta prestazioen isla

Administrazio guztiek aurrekontuko 10 eurotik 8 eta 9 euro bitartean bideratzen dituzte ohiko gastura. Eusko Jaurlaritzak ohiko gastu osoaren % 82 bideratzen du transferentzia arruntetarako, 56,1 milioi euro guztira, foru-aldundiek ohiko gastuaren 64,6 milioiko guztizkoaren % 50 baino gehiago, eta udalek, aldiz, beren ohiko gastuari dagokion 223,3 milioi euroko guztizkoaren % 42,7.


3. irudia. Kultura-arloan likidatutako gastua gastuaren izaera ekonomikoaren eta administrazio-mailen arabera (%). **2008-2018.**



Kontuan izan behar da ohiko transferentzien pisu handi horren barruan beren mende dauden edo haietan partaidetza duten erakunde autonomoei, sozietate publikoei eta fundazioei transferitzen dizkieten kopuruak ere hartzen direla. Hortaz, administrazio-maila horiek neurri handiagoan edo

txikiagoan esku hartzen duten erakundeetara bideratutako partidak dira. Horrelako transferentziak % 80 inguru dira Jaurlaritzaren eta udalen kasuan, eta % 64,5 foru-aldundien kasuan. Gainerako bolumena da kultura-sarera bideratzen dena: 9 eta 10 milioi bitarte Jaurlaritzak zein foru-aldundiek, eta 12 milioi inguru, udalek.

4. irudia. Kultura-arloan likidatutako gastua kapitulu ekonomikoaren eta erakunde motaren arabera. 2018.



Langile-arloko eta ondasun eta zerbitzuen gastuen arloko pisua maioritaria da udaletan (% 24,4 eta % 32,9, hurrenez hurren) eta nagusia erakunde autonomoetan, sozietate publikoetan eta fundazioetan (% 48,8 eta % 49,8, hurrenez hurren).


Horrela, udalek eta erakunde autonomoek kultura-zerbitzuak ematera bideratzen dituzte beren baliabide arruntak, eta langileak eta ekipamendu eta kontratazioetako gastua eskatzen ditu horrek. Aitzitik, foru-aldundiek eta, neurri handiagoan, Jaurlaritzak, haietan partaidetza duten beste erakunde batzuetarako transferentziak lehenesten dituzte batez ere, eta kultura-sarerakoak ere bai.

4. Gastu publikoaren pisua sektoreetan

Gastu publikoaren pisuaren berezitasunak sektoreak babesteari dagokionez

Sektore bakoitzean euro-bolumenari dagokionez dauden aldeei erreparatzeaz gain, gastuaren izaera ekonomikoaren banaketari ere erreparatzeak datuez haratago ikustea ahalbidetuko digu. Ez da gauza bera kultura-zerbitzuak emateko beharrezkoak diren egitura egonkorrak izatea –eta hori izan liteke antzerkien edo kultura-zentroen kasua– eta zuzenean babesa ematea zuzeneko esku-hartze publikoa gauzatzen ez den sektoreei, eta kasu horretan egon daitezke literatura, bertsolaritza eta ikusmen-arteak. Zenbait sektorek langile espezializatuak behar dituzte beren zerbitzuak gidatzeko, hala nola liburutegiak, musika-eskolek edo orkestrek. Horregatik, inbertsio publikoari dagokionez sektore guztien sailkapena islatzen duten rankingez haratago, gastu publikoaren pisua funtsezkoa non den ikusi behar da, eta nolakoa den esku-hartze hori.

5. irudia. Helburuan kultura-gastuan kontsolidatutako gastua kultura-esparruaren arabera (% eta euroak). 2018.



Bi sektorek biltzen dute EAEko kultura-arloko gastuaren % 40: kultura-ekintza eta musika. Udalaren zerbitzu sozio-kulturalak, zeharkako programazioa, kultura amateurra eta musikari eta orkestrei lotutako arautu gabeko prestakuntza-sarea daude inbertsio horren atzean, guztira 160 milioi euro inguru batzen dituelarik.

Museo eta liburutegien zerbitzuek kultura-arloko guztizkoaren % 20 inguru biltzen dute. Museoek, sare zabal batekin, museo horien artean herrialdeko erreferentziazko ekipamenduetako batzuk daudela kontuan izanda, urtean 53 milioi euro inguruko gastu publikoa eragiten dute. Liburutegian sarea da lurraldean kultura-zerbitzuei dagokienez dagoen hedatze handiena, eta 43 milioi euro inguru eskatzen ditu.

Gastu osoaren % 5 eta % 7 bitarteko tartean daude askotariko esparru eta sektore jakin batzuk, hala nola jaiak eta herri-kultura, eszena-arteak (antzerkia eta dantza) eta zinema eta ikus-entzunezkoak. Lehenik, jaiak, 32 milioi euroekin, udalerriko kultura-gastuaren zati nabarmen bat dira. Antzerkia eta dantza, 26 milioirekin, eta zinema eta ikus-entzunezkoak ere, 23 milioirekin, politika publikoen babes garrantzitsua jasotzen duten bi sektore ditugu.

Memoriari lotutako zerbitzu eta erakundeak, hala nola ondarea eta arkeologia eta artxiboak, EAEko kultura-gastu osoaren % 6 inguru batzen dute.


Finantzaketa publiko gutxien duten sektoreak ikusmen-arteak, literatura eta bertsolaritza dira.

5. Enplegu publikoa

■ Enplegu publikoa gorantz

Goranzko joera jarraitua mantentzen du enplegu publikoak. 2018an 3.706 langile biltzen ditu EAeko administrazio publikoak, eta langile horietatik % 78,4 enplegu propioarekin lotuta daude (2.906,1 lanpostu) eta % 21,6 azpikontrataturako enpleguarekin (799,9 lanpostu).


6. irudia. Kultura-enplegu publikoa (lanpostu urtekotuak). 2010-2018.



■ Emakumeen gehiengoa enplegu publikoan


Kultura-arloko enplegu propioaren % 50,0 baino gehiago emakumeek hartzen dute (1.630,0 lanpostu emakumeek, eta gizonek, aldiz, 1.276,1 lanpostu). EAeko administrazio guztiek partekatzen dute joera, foru-aldundien eta udalen kasuan proportzioak gora egiten badu ere: lanpostuen ia % 60,0 emakumeek hartzen dute.

7. irudia. Kultura-enplegu publiko propioa sexuaren eta erakunde motaren arabera (lanpostu urtekotuak). **2018.**



Funtzio profesionalari dagokionez, ehuneko absolutuei erreparatuz gero, emakumeek lanpostu teknikoak, eta kudeaketa eta administrazioko lanpostuak hartzen dituzte gehienbat (467,7 lanpostu eta 345,9 lanpostu, hurrenez hurren). Nabarmentzekoa da, halaber, emakumeen presentzia gizonena baino txikiagoa dela zuzendaritza-postuetan, aldea esanguratsua ez bada ere.

8. irudia. Kultura-enplegu publiko propioa sexuaren eta funtzio profesionalaren arabera (%). **2018.**





www.euskadi.eus/kulturabehatokia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA